

Hamaika egun, mila lagun

Ermuko Euskaltzaleen Sarea oso pozik agertu da Euskaraldiak herrian izan duen harrerarekin. Aurreikuspen guztiak gainditu ziren, eta ariketa sozialak iraun zituen egunetan, eta azaroaren 23an eta abenduaren 3an egin ziren mintzodromoetan giro ederra sortu zen. Amaitu dira hizkuntza ohiturak astindu dituzten hamaika egunak, baina erronkak martxan jarraitzen du.

Ia mila lagunek hartu zuten parte azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen Euskaraldian, 948 lagunek hain zuzen ere. Horieta-
tik 605 Ahozikiak izan ziren eta 343 Belarriprestak. “Ez genuen espero hainbeste jendek parte hartzea, 500 lagun inguru animatuko zirela pentsatzen genuen eta polita

izan da herritarren erantzuna ikustea”, esan digute Ermuko Euskaltzaleen Saretik. “Ez dakigu Euskaraldiak herrian zein eragin izango duen, baina agerian jarri da Ermuan jendeak euskararekiko jarra-
ra positiboa duela eta hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituela”.

Hamaika egun berezi bizi izan ziren Ermuan Euskaraldiarekin eta oraindik ariketa sozialaren hondarrak gertatzen dira. Izan ere, Euskaraldia geratzeko etorri da, egun horietan eragindakoak hizkuntza ohiturak aldatzea duelako helburu. “Bi jarrera aldaketa ikusi ahal izan ziren. Batetik, euskaldun zaharrek pazientzia gehiagorekin jarduten dute euskaraz hain ondo ez dakitenekin. Ireki egin



direla esan daiteke. Eta bestetik, euskaraz hain ondo ez dakitenak euskaraz egitera ausartu dira”.

Azaroaren 23an eta abenduaren 3an bi mintzodromo antolatu ziren euskaraz berba egiteko guneak sortzeko asmoz. Abenduaren 1ean, bestetik, egun berezia ospatu zen herrian. Ermuan Kantuan, argazki jendetsua, kantu bazkaria, Maskaradun DJ-a... hainbat ekintza egin ziren eta jendearen erantzuna bikaina izan zen. “Giro ederra sortu zen. Jende asko animatu zen eta oso ondo pasatu genuen”, diote Ermuko Euskaltzaleen Saretik. Gainera, egun batzuk lehenago Gorka Gonzalezek Euskaraldiarekin

zerikusia duen murala egin zuen Abeletxe kalean eta harrera ona izan du jendearen artean. Euskaraldiak ondorio positiboak utzi ditu, baina aurretik lan handia egin du Ermuko Euskaltzaleen Sareak. “Orain dela urtebete hasi ginen Euskaraldiaren inguruko guztia prestatzen. Bilerak asko egin ditugu, prozesua luzea izan bada ere, pozgarria izan da elkarte askotako jendea nola mugitu den ikustea”.

Dagoeneko ez dago Euskaraldian aukeratutako rola zehazten duen txapa soinean eraman beharrik, baina Euskaraldiko jarrera mantentzeko eskaera egiten dute Ermuko Euskaltzaleen Saretik.

Ekhi Velar



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es

